

**LORATEGI ERREKTANGULARRA**  
F MAILA

**ALDERDIEDER PARKEA, Z.G.**



**Egile eta data ezezagunak**

**Deskribapena**

Alderdi Ederko multzoan txertatutako trazadura geometrikoko lorategia. Haren ingurunearekiko berezko esparru bereizgarria duen lorategia da; izan ere, lorategi horren perimetroan landatutako landareek definitzen dituzte haren mugak, sestra txikiagora hondoratutako maila du eta materialak aldatzen dira, batez ere zeramikazkoak eta antolamenduan kolore jokoak egiten dituztenak. Zeramiken balizko eragin mediterraneoarekin batera, jatorri klasizista frantziarra duten idulkiak, loreontziak eta iturriak agertzen dira. Udal artxiboan dauden datuetatik, 1910 ondoren eraiki zen. Urte horretan desagertzen baita "mendi erusiarrak" deritzana Andia kaleko kantoian, leku horretan hain zuzen ere. Aurretik, Goicoak antzinako lorategiaren zenbait aldaketa egin zuen; izatez, hiru jardun daude jasoarazita: 1897koa (trazadura), 1899koa (urmaela) eta 1904koa (iturria zabaltekoa).

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berriazko erregimena.
  - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
  - B. Elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak; zoladuretako, hormetako, harmailtako eta eserlekuetako zeramikazko baldosak.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
    - \* Ez dira aldaketak baimentzen, ezta sestra gaineko eraikuntzak ere.
    - \* Jatorrizko hiri altzariak babesten dira (pergolak, loreontziak, estatuak, eta abar).